

Etorkizunik ez

Alex Gurrutxaga Muxika

Eleberri eta narrazio goangarrien egilea da Xabier Montoia. Azken lana ipuin-liburua du, eta motibo baten inguruan dago bilbatua: hondamendia. Ipuinotako pertsonaiei etorkizun hobekoagoaren ametsak desegiten zaizkie eta, dauden lekuan daudela, gainbehera etortzen zaie mundua. Hondamendiak hamaika aurpegi izan ditzake, eta beste horrenbeste dira liburuko gaiak eta berorien tratamenduak. Hemenetzi ipuin, hiru ataletan banatuta: *Hitzazurea*, *Etorkizun zoragarri honetan* eta *Betiko gaua*. Tituluak W. Shakespeare, B. Marley eta I. Bachmannen lefroetatik hartuak dira, eta nola edo hala garapen bat markatzen dute: iragana, etorkizuna, amaiera. Genesiaren berrirakurketa iradokitzaila batek zabaltzen du liburua (*Hasiera*), eta azkenekoa, zirkulua itxiz, kontatzen du

Hondamendia izeneko liburua idatzi nahi lukeen idazlearen bizitza –eta heriotza.

Hondamendiaren ideiak aurrera ematen dio egileari bai erreallismoa bai fantasia lantzeko, eta baita muga ibiltzeko ere. Originalak dira trama asko, baina ez beti eraginkorrak. Izan ere, Montoia oso abila da informazioa dosifikatzen, baina hainbatetan sorpresa efektua lausoa da, batez ere bigarren ataleko ipuinetan. Adibidez, bertakoen eta kanpokoen



'Hondamendia'

Idazlea: Xabier Montoia. **Argitaletxea:** Elkar

arteko tentsioaren alegoriatzat har daiteke *Saleriak*, baina untxiek inbaditzen duten uhartearen trama aski ahula gertatzen da; *Putakumeen planetan* ipuinak, berriz, marko fantastiko oso arraroa erailkitzen du, estralurtar batek Lurrean ikusten duenari segiz. Gazi-goza da halako ipuinen efektua. Beste adibide bat *Terrorista* da: Jesusek merkataria tenplutik nola, halaxe bota nahi ditu terroristak Vaticanotik hango fariseo modernoak; baina, ironiatik harago, ipuina ez da oso lortua.

Beste muturrean daude ipuin erreallistenak. *The voice of Ireland*, adibidez, gizon eroriaren kantu oso lortua da. *Petrolio* ipuinak, berriz, bi plano ezkontzen ditu, bi itsasontzi eta bi bizimodu tragikoren uztarketa eginez. Aipagarriak dira, halaber, *Maiatza*, Fosca Corsinovi libertarioari eskainia, *Hondamendia*, talde armatu islamista batek hil dezan zain dagoenaren trantzea, edota *Izar baten itzaltzea*, txakurrazaren ikuspegi oinarritutako ipuin originala.

Xabier Montoia idazkera aski markatua eta fina da. Idaz-

kerak teknika ugari erabiltzen du –plano jokoak, puntuazio libreko bakarrizketa, pertsona narrati- boen alternantzia, zehar estilo librea...–, eta aipatzea merezi du erabilitako euskarak ere; koloretua eta joria da, eta euskalkiekin aberasten du gainera, hiztunen sinesgarritasuna areagotuz: nafar-lapurtararekin *La belle vien*, Gipuzkoako mendebaldekoarekin *Akaberakoa*-n, etab.


Txema Arinasek BERRIAKO zutabean (*Kritika txar baten posibilitatea*) iradoki zuen –irakurle honek ongi ulertu bazuen behintzat– Montoia azken liburua ez zaiola ona iruditu. Argudiorik ez zegoen artikuluan eta, ezin eztabaidatu. Baina, honezkero argi dagoen bezala, gure irakurketa- ren ondorioa bestelakoa da: gehiago dira liburua ona dela esanarazten diguten elementuak, kontrakoak erakusten dutenak baino. Oro har, ipuin erreallistik nabarmenduko nituzke, ikuspegi ironikoa eta kritikoa dutenak, eta ez hainbeste fantastikoak, fikzio- marko eta trama ahulagokoak. Edonola ere, istorio gozagarriak dira *Hondamendia* osatzen dutenak.



'Aitorren ametsa'

Idazlea: Marie-Christine Thiry Merlo. **Itzultzailea:** Antton Hariñordoki. **Argitaletxea:** Zortziko.

Thiry Merlo zerkamikiari eta margolariaren aurreneko komikia da *Aitorren ametsa*. Zortziko argitaletxeak jakinarazi duenez, Aitor «joaldun-surflaria- ren aventura dardaratsuak irudi oniriko eta koloretuak kontatzen» ditu marrazkilariak, euskal folklorea gaurrera ekarritz.



'Iparmina. Ipparaldeko bizikerak eta kultur kronikak'

Idazlea: Joseba Aurkenerena. **Argitaletxea:** Amalur-Baita

Ipar Euskal Herrian «euskaldunen eta euskararen inguruan ikusitakoak, ikasitakoak eta bizitakoak» bildu ditu egileak lan honetan, aurretik eginko beste hainbatetan bezala. Autoreak azaldu duenez, «mirespenez eta maitasunez» landu ditu gaiak.



'Aita deitzen zen gizona'

Idazlea: Joan Errea. **Argitaletxea:** Pamiela.

Joan Errea Nevada (AEB) jaiotako euskal etorkin idaztako gogoetak eta oroitzapenak bildu ditu Pello Salaburuk Aita deitzen zen gizona liburuan. Behe nafarreraz idatzia, euskal diasporako kideen bizipen eta esperientziak idatzi ditu Erreak, euskal emigrazioa azalduz.

Leiho bat abangoardiara

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Diotenez, *Txanogorri-txu* ipuina idaztean Ch. Perraultek helduak zituen gogoan. Ez da harrizkoa. Haurrentzat jotzen ditugun idazki zahar guztiez berdina esan liteke. Duela mende gutxi arte, haurra heldua izatekoa den pertsona txikia baino ez zen.

Gaur egun badakigu haurrak eta helduak desberdinak gara, pertsona izateko bi aldarte desberdin. Usterik okerrenak ere badu ordea egia punttu bat. Izan ere helduak zein haurrak alde askotara berdintzen gara, maitasunean, kasu, eta *Tropezista* frogarbia da.

Helduen arteko maitasun ipuin honek berdin balio du adin guztietako bihotzak urratzeko, ber-

din balio du plazer estetiko amai- gabea sentitzeko Odrizozola beti harrigarriak osatutako ilustrazio- arekin, eta berdin balio du XXI. mendeko literatura abangoardi- atzat har liteken albumaren ahal- menak ederresteko.

Gutizia honek 2013ko Euskadi saria jaso zuen ilustrazio atalean, eta, bere *Ur: euriaren liburua* (Denonartean, 2014) eta *Frankenstein* (Nordica, 2015) lanekin batera, irudigile donostiarraren jaidura minimalistenaren erakus- leihotzat har daiteke.



'Tropezista'

Idazlea: Jorge Gonzalvo. **Ilustratzailea:** Elena Odrizozola. **Itzultzailea:** Juan Krutz Igerabide. **Argitaletxea:** Denonartean

Ogibidea aukeratzen

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Arkeologoa, albaitaria, dantzaria eta senda- gilea. Sukaldaria, fut- bolaria, astronauta eta lasterketa pilotua. Dagoeneko zortzi lanbideren azalpen libu- ruxka kaleratu dira, *handitan...* bildumaren barruan. Hiruzpalau urtetik gorako edozeinentzat egokiak diren azalpen eta irudiak dakartzate, duen tonu *infantilak* goiko muga ezartzen badu ere.

Azalpenek eta irudiek ogibide hauetako bakoitzaren ezaugarri orokorrak garbi adierazten dituzte, argibide orokorretatik abiatuta, anekdota pertsonaletara garatuz testua.

Joera ikonikoa duten irudiekin eraiki dira ilustrazioak, marra lo- diz inguratuta eta kolore bizi- kin. Pertsonak buru handiak

dira, animaliak apur bat gizatari- tua daude, eta denak du halako estetika alai gozo bat.

Aukeratutako lanbideak arra- kasta sozialarekin lotzen diren horietakoak dira batik bat, eta hutsune nabarmena dago kalifi- kazio baxukoei dagokionez, bai- na tira, modakoan artean denetik dago. Eta orain galdera: zein ge- nero aukeratu ote dira lanbide bakoitzean? Erantzuna lehen esaldian dago, bi multzotan, nes- ketatik hasita.



'Sendagilea'

Idazlea: Liesbet Slegers. **Ilustratzailea:** Liesbet Slegers. **Itzultzailea:** Leire Mendizabal. **Argitaletxea:** Ibaizabal.